

ERABAKIA, 2020ko UZTAILAREN 7koa, 1. IRAKASLE ATXIKIAREN PLAZA (PAC8L2-D00101-17 18 Zbk.) BETETZEKO HAUTAKETA PROZESURAKO ONARTUTAKO IZANGAIEN BEHIN-BEHINEKO ZERRENDAN AKATS BAT ZUZENTZEKO DENA (2020/06/05eko DEIALDIA)

Egiaztatu egin dira honako

GERTAKARIAK

Lehenengoa.- Irakasle-ikertzaileen arloko errektorearen 2020/06/5eko Erabakiaren bidez, deialdia egin zen lehiaketa publikoaren bidez irakasle atxikiaren plaza hau betetzeko:

Deialdia: 2020/2021

Deialdiaren ordena: 18 (PAC8L2-D00101-17)

Saila: Farmazia eta Elikagaien Zientziak

Jakintza arloa: Elikagaien Teknologia

Hizkuntz eskakizuna: Elebiduna

Bigarrena.- 2020/07/01ean argitaratu zen hautaketa prozesu horretan onartutako izangaien behin-behineko zerrenda. Zerrenda argitaratu ondoren, Irakasle eta Ikertzaileen Zerbitzuan jaso zen **Igor Hernandez Ochoa jaunaren** eskaera, 2020/06/26ko erregistro postal-zerbitzuko sarrera zigilua zuena. Egiaztatu egin da eskatzailea oker kendu zutela aipatutako zerrendatik.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

Lehenengoa.- Kasu honetan honako hauek aplikatu behar dira: 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena; 3/2004 Legea, otsailaren 25ekoa, Euskal Unibertsitate Sistemarena (martxoaren 12ko EHAA); 40/2008 Dekretua, martxoaren 4koa, UPV/EHUko irakasleen eta ikertzaileen araubideari buruzkoa; Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitateko errektorearen 2017ko urtarrilaren 25eko Erabakia, gobernu taldearen egitura eta funtzionamendu arloak zehazteko, eta eskumenak eskuordetzekoa (otsailaren 3ko EHAA); 2011ko maiatzaren 2ko Erabakia, aldi baterako irakasleak eta ikertzaileak kontratatzekeo arautegia argitaratzekoa; eta

2020ko ekainaren 5eko Erabakia, zeinaren bidez lehiaketa publikorako deia egin baitzen Euskal Herriko Unibertsitatearentzako irakasle elkartuen kontratuak adjudikatzeko.

Bigarrena.- Irakasle-ikertzaileen arloko errektoreordeak eskumena du, eskumenak eskuordetuta, erabaki hau emateko, Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitateko errektorearen 2017ko urtarrilaren 25eko Erabakiarekin bat (gobernu taldearen egitura eta funtzionamendu arloak zehazteko, eta eskumenak eskuordetzeko erabakia; otsailaren 3ko EHAA).

Hirugarrena.- 39/2015 Legearen 109.2 artikulua honako hau dio: *“Administrazio publikoek edozein unetan zuzendu ditzakete, ofizioz edo interesdunek eskaturik, beren egintzetako oker materialak, egitezkoak edo aritmetikoak”*. Bigarren gertakarian adierazi bezala, oker bat gertatu da hautaketa prozesuan; errore hori aipatutako arauan koka daiteke, eta zuzendu beharra dago.

Adierazitako guztiagatik, honako hau

ERABAKI DUT:

Lehenengoa.- Izandako akatsa zuzentzea 2020ko ekainaren 5ean deitutako S Farmazia eta Elikagaien Zientziak Saileko irakasle atxikiaren 18. plaza (PAC8L2-D00101-17) esleitzeko lehiaketarako onartutakoen zerrendan. Zerrenda horretan, **Igor Hernández Ochoa jauna** izangai gisa sar dadin, aurkeztutako dokumentazioan deialdian ezarritako baldintzak betetzen dituela egiaztatu baita.

Bigarrena.- Erabaki honen berri ematea interesdunei, jakinarazpenetarako adierazitako helbidean, eta Soziologia Sailari, baita kasuan kasuko epaimahaiko idazkariari ere. Har beza kontuan dagokion atalak Irakasle eta Ikertzaileen Zerbitzuan.

ERREKURTSOAK

Erabaki honek administrazio bidea amaitzen du eta beraren aurka administrazioarekiko auzi errekurtsoa jar daiteke Bilbon, dagokion administrazioarekiko auzien epaitegian, edo demandatzaileari bere egoitzaren

arabera dagokion epaitegian, demandatzailearen beraren aukeran. Horretarako, bi hilabeteko epea dago erabakia jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera (Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legeko 8.2.a, 10.1.j eta 14.1 Bigarrena artikulua).

Leioan, 2020ko uztailaren 7an



Eskumenak eskuordetuta, UPV/EHUko irakasle-ikertzaileen arloko errektoreordea

Sin.: Inmaculada Guerricagoitia Marina



CONCURSO PUBLICO PARA LA ADJUDICACION DE CONTRATOS

KONTRATUA ADJUDIKATZEKO LEHIAKETA PUBLIKOA

IRAKASLE ATXIKIA / PROFESOR ADJUNTO

FECHA PUBLICACION: 01/07/2020

DEIALDIA/CONVOCATORIA:	2020/2021	PROFESORADO ADJUNTO (AYUDANTE DOCTOR/A)
DEIALDIKO DATA/FECHA CONVOCATORIA:	05/06/2020	
DEIALDIAREN Z./N. CONVOCATORIA:	18	
PTO. ESPECIFICO/PTO. ESPEZIFIKOA:	PAC8L2 - D00101 - 17	
SAILA/DEPARTAMENTO:	Farmacia Y Ciencias De Los Alimentos/farmazia Eta Elikagaien Zientziak	
JAKINTZA ARLOA/AREA CONOCIMIENTO:	Tecnología De Alimentos/elikagaien Teknologia	
HIZKUNTZ ESKAKIZUNA/PERFIL LINGÜISTICO:	ELEBIDUNA (EUSKERA/GAZTELANIA) - BILINGUE(EUSKERA/CAST.)	
ARDURALDIA/DEDICACION:	Tiempo completo 8 horas/Arduraldi osoa-8 ordu	

Egin beharreko iharduerak/Actividades a realizar:

Haragiaren, Arrainaren eta Produktu Eratorrien Zientzia eta Tekno / Ciencia y Tecnología de la Carne, Pescado y Productos Derivados
Diseinua eta Berrikuntza / Diseño e Innovación
Sukaldaritza Teknologia eta Elikagaien Prozesatzea / Tecnología Culinaria y Procesado de Alimentos

RELACION PROVISIONAL DE CONCURSANTES ADMITIDOS / LEHIAKIDE ONARTUEN BEHIN BEHINEKO ZERRENDA

DATOS PERSONALES

NOTAS

11020 - HERNANDEZ OCHOA IGOR
42279 - NIEVA ECHEVARRIA BARBARA



CONCURSO PUBLICO PARA LA ADJUDICACION DE CONTRATOS

KONTRATUA ADJUDIKATZEKO LEHIAKETA PUBLIKOA

IRAKASLE ATXIKIA / PROFESOR ADJUNTO

FECHA PUBLICACION: 01/07/2020

DEIALDIA/CONVOCATORIA:	2020/2021	PROFESORADO ADJUNTO (AYUDANTE DOCTOR/A)
DEIALDIKO DATA/FECHA CONVOCATORIA:	05/06/2020	
DEIALDIAREN Z./N. CONVOCATORIA:	18	
PTO. ESPECIFICO/PTO. ESPEZIFIKOA:	PAC8L2 - D00101 - 17	
SAILA/DEPARTAMENTO:	Farmacia Y Ciencias De Los Alimentos/farmazia Eta Elikagaien Zientziak	
JAKINTZA ARLOA/AREA CONOCIMIENTO:	Tecnología De Alimentos/elikagaien Teknologia	
HIZKUNTZ ESKAKIZUNA/PERFIL LINGÜISTICO:	ELEBIDUNA (EUSKERA/GAZTELANIA) - BILINGUE(EUSKERA/CAST.)	
ARDURALDIA/DEDICACION:	Tiempo completo 8 horas/Arduraldi osoa-8 ordu	

RELACION PROVISIONAL DE CONCURSANTES EXCLUIDOS / ONARTUKO GABE LEHIAKIDEAK BEHIN BEHINEKO ZERRENDA
CAUSAS DE EXCLUSION

DATOS PERSONALES

ONARTUA EZ IZATEKO ARRAZOIAK

NO HAY CANDIDATOS EXCLUIDOS